

225/2025 EBAZPENA, otsailaren 4a, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen den lanbide-garapeneko ohiko deialdian (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutakoan) onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Azaroaren 22ko 395/005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen 11. artikulua ezartzen duenez, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari dagokio mailaketarako ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea. Dekretu horien bidez, Osakidetza lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta lanbide-heziketako pertsonal ez-sanitarioaren eta pertsonal ez-sanitarioaren lanbide-garapena arautzen da.

1723/2024 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez arautzen diren Osakidetza mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako 2024ko ekitaldiko lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak.

1723/2024 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den lanbide-garapeneko ohiko deialdian (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutakoan) onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, behin-behineko zerrenda argitaratzearen aurka deialdi arruntean bertan ezarritako epean egindako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira.

Aurreko guztiagatik, eta emandako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren bidez argitaratutako deialdian parte hartu duten Osakidetza zerbitzu-erakundeetako profesionalen artean onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, Ebazpen honen eranskinetan jasotako zerrendaren arabera:


I. eranskina: Ohiko deialdian onartutakoen behin-behineko zerrenda.

II. eranskina: Deialdi arruntetik kanpo utzitako eskabideen behin-behineko zerrenda

Bigarrenena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 1723/2024 Ebazpenaren 5. artikulua leheneko paragrafoari jarraikiz, hamar egun balioduneko epea ematen da erreklamazioak aurkezteko eta eskabidea zuzentzeko, ebazpen hau Osakidetza web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan egin ahalko dira, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>.

Hirugarrena.— Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, ebazpena emango da onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda onartzeko, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko da. Ebazpena Osakidetza webgunean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025ko otsailaren 4a.


 **Osakidetza**
Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA